


EKONOMIA SENTIMENDUA EUROPAN


Europako baikortasuna berriro apaldu da

Ekonomia sentimendua Europar Batasunean





Europako Batzordeak argitaratzen duen ekonomia sentimenduaren indizeak seinalatzen du Europar Batasuna galtzen ari dela azken urteetan izan duen baikortasuna, baina oraindik egoera onean dagoela. Hain zuzen ere, adierazle horren martxoko datua 105,0an kokatu zen, otsaileko emaitza baino lau hamarren beherago, baina oraindik estatistika horren batez besteko historikoa, 1990ean hasitakoa, seinalatzen duen 100eko balioaren gainetik. Alemania da emaitzarik onena jasotzen duten herrialdeetako bat (106,6), baina industriak herrialdearen emaitza kaltetu du. Frantziak (101,0), berriz, mesfidantzazko prozesuarekin bat egin zuen, nahiz eta azken hilekoetan nahiko egonkor portatu den. Bi herrialde horietan, eraikuntzak eskaintzen ditu igurikimen onenak, batez besteko historikotik oso goitik kokatuta baitago.

Ekonomia sentimendua Alemanian




Ekonomia sentimendua Frantzian



Ekonomia sentimendua Erresuma Batuan

Erresuma Batuak ezustea eman du martxoako datuarekin (100,8), aurreko hilekoaren emaitzaren aldean puntu bat baino gehiago hobetu delako, azken hau (99,2) lehen datu negatiboa izan baitzen sei urteko epean. Europar Batasuna uzteko bidez dagoen akordiorik ezak ziurgabetasuna eragin du, bereziki zerbitzuetan, txikizkako merkataritzan eta kontsumitzailearen konfiantzan nabaritu dena.

Italiako egoera (101,0) Frantziarenaren antzekoa da, zeren eta adierazleak motteltze bizia ezagutu ondoren, azken hilekoetan 100etik hurbil dagoen balio batean egonkortu baita. Herrialde horretan, azpimarratzekoa da txikizkako merkataritzaren eta eraikuntzaren bilakaera ona. Aitzitik, industria, zerbitzuak eta kontsumitzailearen konfiantza beren batez besteko historikotik oso hurbil daude.

Ekonomia sentimendua Italian**Ekonomia sentimendua Espainian**

Azkenik, portaera orokor horretatik aldentzen den herrialdea Espainia da, neurri batean ez duelako halako apaltze bizirik ezagutu eta, beste aldetik, martxoan azken lau hilekoetako baliorik gorena (106,7) jaso zuelako, Alemaniaren parean kokatuz. Osagai guztiak batez besteko historikoaren gainean daude eta emaitzak bereziki onak dira txikizkako merkataritzan eta eraikuntzan, kontsumitzailearen konfiantza altua den bitartean.